



MIREN ZEBERIO ▶ BIOLIN-JOLEA

## «Albisteak jasotakoan, mezua 15 aldiz irakurri nuen sinestu aurretik»

**TOLOSA** ▶ Gustav Mahler Jugenorchester Europako gazte orkestra ospetsuenetakora deitu dute biolin-jole tolosarra

**ETORKIZUNA** ▶ Pozarren mintzatu zaio HITZari Utrecht-etik (Holanda): «Espero dut orain ere beste ate ezezagunak irekitzea» ▶ 2



## Plaza eta eliza apirilerako eraberritzea espero dute

**IKAZTEGIETA** ▶ Azaroan ekin zieten herriko eliza eta plaza eraberritzeko lanei, eta pixkanaka itxura berria hartzen ari da ingurua. Besteak beste, elizako arkupea amaitu dute dagoeneko, eta plazako zorua ere bideratzen hasia da. Apirilera lanak amaituta egongo direla espero dute agintariek. N. URBIZU ▶ 5

**TOLOSA** ▶

### Rondillaz, Arramelez eta etxabe hutsez

Alde Zaharra-Dendak elkarteak gune hauen hobekuntza eskatu dio Udalari ▶ 3

**AMEZKETA** ▶

### Zazpi-Iturri pilota eskola ere Berria Txapelketan

Gaur jokatuko du lehen jardunaldia; taldeak hiru bikote aurkeztuko ditu ▶ 5



**TOKIKO AGENDA 21 PROZESUA HERRITARREK**  
Adunako, Asteasuko, Irurako, Hernaldeko, Villabonako eta Zizurkilgo IRAUNKORTASUN DIAGNOSTIKOAREN ZIRRIBORROA ESKURATU ETA EKARPENAK EGITEKO AUKERA IZANGO DUTE

Udal hauek –UDALTALDE 21 ERNIOALDEA- Tokiko Agenda 21 prozesuaren barnean, iraukertasun diagnostikoaren zirriborroa eginga dute dagoeneko. Dokumentu honetan bi zati nabarmen daitezke: alde batetik diagnostikoaren zirriborroaren dokumentu osoa eta bestetik horren laburpena eta ondorioak. Herritarrek, urtarrilaren 23tik aurrera udaletan bi dokumentuak izango dira eskuragarri. Ekarpinak, idatziz eta otsailak 10 arte, Udaltalde 21eko helbide elektronikoko edo postalera bidali beharko dira. Posta elektronikoko helbidea: . Helbide postala: Villabonako Udala. (Itziar Eizagirre Udaltalde 21 Ernioaldeko koordinatzailearen izenean). Erreboteko enparantza, s/n (20.150) VILLABONA

**PARTAIDEAK:**



## MIREN ZEBERIO ▶ BIOLIN-JOLEA



Miren Zeberio, Holandako parke batean, negu honetan. Bi urte daramatza Utrecht-en musika ikasten beka baten laguntzarekin. IZASKUN ETXETXIPIA

# «Albistea jasotakoan, mezua 15 aldiz irakurri nuen sinestu aurretik»

Gustav Mahler gazte orkestran hartu dute biolin-jole tolosarra;  
Aste Santuan eta udan ariko da, tartean Donostiako Hamabostaldian

JOXEMI SAIZAR

Gustav Mahler Jugenorchester (GMJO) Europako gazte orkestra ospetsuenetakoa da. 1986an sortu zuen Claudio Abbado zuzendariak eta 26 urtez azpiko 86 kidek osatzen dute. Iaz Donostiako Hamabostaldian izan zen eta kritika eta entzulegoa txundituta utzi zituen; «urteko ustekabea» izendatu zuen prentsak. Duela egun gutxi jakin du Miren Zeberio 22 urteko biolin-jole tolosarrak orkestra honetan hartu dutela. Euskal Herrian ibilbide luze eta oparoa egin ondoren, gaur egun, beka baten laguntzaz, Utrecht-en (Holanda) ari da ikasten eta bertan harrapatu du albistea. Udan, Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, harizko instrumentistei zuzendutako Nikanor Zabaleta XII. musika beka jaso zuen. Azken Eguberrietan Santa Maria parrokiako musika kapera entzuteko aukera izan genuen. Jaso berri duen albistiaz mintzatu du HITZAREKIN.

**Mahler orkestran sartzeko proba egin zenuen eta orain hartu zaituzte. Nola izan da aukeraketa?**

2003ko bukaeran egin nuen audizioa Madrilen, hau da, duela bi urte. Orkestra honetarako probak Europa guztian zehar egiten dira, normalean herrialde bakoitzeko hiriburuan. Orduan erreserba kide bezala hartu ninduten, hau da, kide titularrek huts eginez gero edo plantila bereziren bat beharrez gero deitzen dizute. Hala ere, orduan ez nuen zorterik izan, eta ez ninduten hartu. Hala ere, oso pozik egon nintzen nire erreserba plazarekin. Zerbait da, ez?

**Nolakoa proba izan zen?**

Zure instrumentuarentzako kontzertu baten mugimendu bat prestatu behar duzu, eta horrez gain orkestrako pasajeak deitzen direnak: hamar bat zati konposatzaile derberdineak, orkestrako obra garrantzitsuetatik aukeratutak. Ia orkestra guztietan eskatzen dituzten pasaje berak dira, nahiko es-

tandarrak. Ez dago epaimaharirik aurrean, bideo-kamara baten aurrean jotzen duzu, hamar bat minutu, eta gero beraiek leku guztietan jasotako grabaketan bidez egiten dute aukeraketa.

**Nola izan zenuen orkestra honen berri eta nola animatu zinen aurkeztera? Ezagutzen al duzu taldekideren bat?**

EGOn (Euskal Herriko Gazte Orkestra) nengoela duela 6 bat urte JONDEren (Joven Orquesta Nacional de España) berri izan nuen, eta hara aurkeztu nintzen. JONDEN, berriz, orkestra honen eta EUYOren (European Union Youth Orchestra) berri izan nuen. Baziren zenbait musikari orkestra hauetan onartuak izan zirenak. Frogak urtean behin dira, eta pare bat aldiz aurkeztu naiz bai EUYOra eta bai honetara. Eta, azkenean, onartu egin naut! Maila altuko gazte orkestrak dira, ez da erreza sartzea, baina faktore asko daude jokoan, eta nahiz eta sartzeko konbenzimenturik ez izan, ona da

saiatzea. Frogak egitea ez dator behin ere gaizki, eta batzuetan zorrea izan dezakezu. Hala gertatu zitzaidan EGOrkin, bai JONDErekin eta baita orain GMJOrekin ere! Ez dakit oraindik ziur zein jende izan den onartua, baina nirekin JONDEN izandako pare bat klarinete-jole egongo direla uste dut.

**Noiz eta nola jakin duzu aukeratu zaituztela eta nola sentitu zinen?**

Frogak azaroan egin genituen, eta emaitza joan den astean jaso nuen, e-mail bidez. Dardarka nengoan, bihotza oso azkar taupadaka, eta e-maila hamabost aldiz irakurri nuen, sinestu aurretik!

**Aste Santuan bira izango duzue Bolzano, Munich, Madril, Viena, Paris eta Turinen kontzertuak eskainiz. Noiz hasiko zara orkestran lanean eta zenbat denboratarako izango da?**

Orkestran urtebeterako onartua izan naiz, eta horrek Aste Santuko eta udako biran parte hartzea esan nahi du. Bi ego-

## PROBA

«Proban ez dago epaimaharirik, bideo kamara baten aurrean jo eta grabaketan bidez aukeratzeko dute»

## BIZITZA

«Ikasi eta gustuko dudana musika egin nahi dut, gustuko dudana jendearekin; eta jendea gozatuarazi, noski»

## AUKERAK

«Espero dut Mahler orkestran sartzeko beste ate ezezagunak irekitzea, lehen EGOn eta JONDEN bezala»

naldi dira, lehena apirilaren 5etik 30era Bolzanon, aipatutako hiri horietan zehar bira barne, eta bigarrena abuztuaren 4tik 27ra. Bira horretan Donostian joko dugu, Musika Hamabostaldian.

**Nola uztartuko duzu lan berria orain arte Utrecht-en egiten ari zarenekin?**

Bada, apiril guztia kanpoan izango naiz, eta klaseak galduko ditut, baina topaketan izugarri ikasiko dudala kontuan hartuta, ez ahal da hainbesteko galera izango!

**Nola eragingo du jaso duzun albiste honek zure etorkizuneari? Orain arte egindako ibilbidea —EGO, JONDE, diskoak, kontzertuak, beka...— gailurrera iristen al da Mahler orkestran sartzarekin, edo zein izango litzateke hurrengo pausoa?**

Bueno, ez daukat oso argi. Gurtura nago Utrecht-en, eta printzipioz datorren urteko ekainean bukatuko ditut ikasketak hemen. Badut ideia bat buruan bueltaka. Hego Amerikara joatea, musikako klaseak ematea beste gizarte guztiz desberdin batean, beste esperientzia berria bizitzea, hemengo giroarekin eta hemengo musika ulertzeko moduarekin zerikusirik ez duena. Ez dago ezer argi, ordea. Espero dut Mahler orkestran sartzeko beste ate ezezagunak irekiko dizkidala, aurrez EGOrkin edo JONDErekin gertatu zitzaidan moduan. Ikusiko dugu! Ahal den hobekien bizi-tzen saiatuko naiz, ikasi eta gustuko dudana musika egin gustuko dudana jendearekin... Ahal bezainbeste gozatzeko, hori da nire helburua, eta entzuten didan jendea gozatuaraztea, noski...

**SAN BLAS JAIK ▶**

**San Blas jaietako egun handiena izan zuten atzokoan**

**N. Lataburu ▶** Atzo izan zuten San Blas auzokoek haien egun handia. Goizean goiz, usadioak jarraituz, Meza Nagusia entzuteko elkartu ziren. Eta, han, bertako produktuen bedeinkapena burutu zuten —eskuineko argazkian ikus daitekeen bezala—. Ondoren

plazatxoan bildu eta ohiko Toka Lehiaketa egin zuten, auzokideen artekoa. Bertan erroskilen postuentzako lekua ondo gordetzen zuten eta botatako izerdiak ederki berreskuratu zituzten erroskila gozo-gozoei esker. Bihar arte izango dute zer gozatua. NOELIA LATABURU

**ERLIJIOA ▶**
**Ikastaro berezia egingo dute Santa Maria elizan**
**N. LATABURU**

Tolosa-Ibarra Pastoral Barritiak ikastaro berezia antolatuko du, Santa Maria elizan, hilaren 8an, 9an eta 10ean. Laiko, erlijioso eta apaizei zuzenduriko ikastaroa Santa Mariako areto nagusian garatuko da. *Egizue hau nire oroigarri* izenburupean, Jesus Mari Arrieta ariko da irakasle lanetan. 16:00etan euskaraz eta 20:00etan, berriz, gaztelaniaz emango ditu eskolak.

Hainbat jorratuko ditu Arrietak, egun bakoitzeko bat. Batetik, euskaristia, Jaiaren oroigarria. Bestetik, euskaristaia, esker-otoitza eta ogizatitza; eta, azkenik, eukaristia elkartasuna eta zerbizua.

**GIZARTEA ▶**
**NOELIA LATABURU**

Iragan ostegunean Alde Zaharrak-Dendak elkarteak ordezkariek Tolosako alkatearekin bildu ziren eta, bertan, elkartearen ustez jorratu beharreko hiru ardatzak azaldu zituzten Bildarratzi: Rondilla kalearen etorkizuna, Arramele auzoa eta hutsik dauden etxabe komertzialak.

Lehen gunearen gainean Beatrix Ortiz de Zaratek jardun zuen. Rondilla kalea oinezko bihurtzeko asmoen aurka azaldu zen elkarteak, «bisitarietarako behar diren aparkalekuak jartzen ez badituzte». Halaber, Rondillaren eskuineko kale berria zerbitzuertarako bide gisa erabiltzea dute helburu. «Taldekideok lan taldea sortu dugu, gai horren jarraitzea egiteko asmoz», gaineratu zuten elkarteak.

Arramele auzoaren nondik norakoen kezka ere helarazi zioten alkateari. Batetik, «pozik» azaldu ziren elkartekide-

# «Gure hiru ardatzak: Rondilla, Arramele eta etxabe hutsak»

Gune hauen hobekuntzan oinarritu zuen Alde Zaharrak-Dendak elkarteak pasa den astean Tolosako alkate Jokin Bildarratzekin izandako bileraren funtsa



Atzo eguerdian, Alde Zaharrak-Dendak-ekoan agerraldia. NOELIA LATABURU

ek; izan ere, lehen aldiz urte askoan, Tolosa iparralderantz zabalduko da, «Alde Zaharrak mendeetan izan duen nagusitasuna berreskuratu beharko lukeelarik». Haatik, aipatu nagusitasuna eraginkorra izateko, «beharrezkotzat» jo zuten taldeak «modu integrarean jardutea», Arramele eta Arkaute Alde Zaharrari hurbiltzeko eta, ahal den neurrian, «bizilagunek leku horietatik herritik kanpora alde egin ez dezaten». Horretarako, besteak beste, bi zonaldeen arteko lotura hobetzea proposatu zuten.

Azken aipamena Alde Zaharrean hutsik dauden lokalei buruzkoa izan zen. Amaia Jimenezek azaldu zuenez, haien helburua etxebizitzetako lehen solairuetan dauden negoziak (abokatuak, medikuak, edergintza zentroak...) etxabeetara jaiste litzateke. «Bi arazo konpontzen dira gisa horretan: etxebizitzeara eta lokalak betetzearena». Bestalde, Eguberrietako kanpainaren gainean ere aritu ziren eta bazkideen artean inkesta bat burutzen ari direla jakinarazi zuten, «ea zerbait hobetu daitekeen».

**iragarki laburrak ▶**
**LANPOSTUAK**

**Garbitzaileak.** Lanpostu finkoak: Eusko Jaurilaritza, ikastebeak, ospitaleak. Informazioa: 943 313782.  
**Haurtzaindegi publikoak.** zaintzaileak, hezitzaileak... behar

dituzte haurtzaindegi publikoek. 943 313782.  
**Peioiak.** Igeltseroak, elektrozistak, iturginak, lorezainak, palistak, gidariak. Lanpostu libreak udaletan. 943 313782  
**Gidariak.** Udaletan eta Foru

Aldundian laster lanpostuak. Kontratu mugagabeak. 943 313782.  
**Sukaldariak eta sukaldari laguntzaileak.** Postu libreak Eusko Jaurilaritzan. 943 313782.  
**Suhitzaileak.** Ertzaintza, polizia.

2006ean lanpostu berriak. Informazioa: 943 313782.  
**Haur eskolak.** Haur zaintzaileak eta haur hezitzaileak behar dira. 943 313782  
**Administrari laguntzaileak.** Hurrengo sarrerak: Beasain, Bergara,

Soraluze, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Lanaldia astelehenean ostiralera, 08:00etatik 15:00etara.  
**Langileak.** Obratoko langileak, gidariak, zabor biltzaileak, garbitzaileak behar dira udaletan. 943 313782.

## SANTA AGEDA ▶

## Eskean ateratzeko gaurko zenbait hitzorduren berri

Hauexek dira Santa Ageda bezperan egingo diren zenbait ekitaldiren hitzorduek: Alegian, Txintxarri abesbatzarekin batera kantuan ariko direnak 18:00etan elkartuko dira Larraitz auzoan, Kurpil kafetegiarean ondoan. Antolatzaileek baserriarrez jantzita azaltzeko eskatu dute. Asteasun, Amnistiaren Aldeko Mugimenduak antolatuta, preso eta errepresaliatuen alde aterako dira kantuan. 14:00etan elkartuko dira plazan eta deialdia egin diete herritar guztiei parte hartzeko. Villabonan, Eresargi abesbatzarekin batera aterako den taldea 18:30ean elkartuko da Santiago zaharren egoitzaren ondoan. Tolosako Kirikiño aisialdi taldekoak Iurramendira abiatuko dira 16:00etan eta gero herrian zehar ariko dira kantuan.

## ANOETA ▶

## Alkartasunako bi bazkide ohien omenezko meza

Alkartasuna Biltokiak meza bat eskainiko du Vicente Otaegi eta Juan Larranaga bazkide ohien omenez. Bihar izango da, parrokian, elebitan eta 12:30ean.

## ANOETA-IRURA ▶ HEZKUNTZA

## Guraso Eskola abian da Anoetako eta Irurako ikastoletan

Dagoeneko saio bat egin badute ere, aukera dago izena emateko; Joxe Amiama psikopedagogo da arduraduna

IMANOL GARCIA

Ikasturte honetarako ere Anoetako eta Irurako ikastolek guraso eskola antolatu dute, bi herrietako udalen laguntzarekin. Aurreko urtean bezala, Joxe Amiama psikopedagogoak emango ditu eskolak. Pasa den astelehenean izan zen lehenengo saioa, eta hilaren 13an izango da hurrengo hitzordua. Bi aste behin egingo dira eskolak, astelehenean, 15:00etatik 16:45era. Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako gurasoen taldea sortu da, eta oraindik aukera dago izena emateko. Horretarako ikastolentara deitzea nahikoa da.

Dani Maiza Anoeta Herri Ikastolako zuzendariak animatzen ditu gurasoak parte hartzeira: «Aurreko urtean balantze oso ona egin genuen, eta aurtentzat bertan bera mantenduko da eta aditua ere bera izango da». Maizak gaineratu duenez, «Ikastolen helburuetako bat



Guraso Eskolaren lehenengo saioaren une bat. HITZA

kide guztien —bai ikasle, guraso eta irakasle— arteko harremanak hobetzea da. Gaur egun gizarteak eskatzen du baloreetan hezitzea eta heziketa emozionala ere gure gain hartzea. Ahalmen emozionala lantzea eskatzen zaigu, eta horretarako tresnak ematea guraso, ikasle eta irakasleik.

Guraso Eskola hauek prebentzio programa baten baitan antolatzen dira. «Nahiko erro-

tuta dago aditu guztien artean harremanen inguruan esfortzua gatazkak sortu aurretik egin behar direla, horiek ekiditzeko. Gatazka bihurtuz gero, konpontzea zailagoa da», nabarmendu du Maizak.

## Autoestima eta autonomia

Joxe Amiama tolosarrak du gurasoei eskolak emateko ardura. «Eskola eta familiaren arte-

ko harremana lotzea da helburuetako bat», dio Amiamak. Eta gurasoen artean zabaldua dagoen ideia bat aldatu nahi du: «Gurasoek uste dute haurra azkarra izateak gizartearen ondo moldatzeko balioko diola, baina elementu gehiago daude, autoestima, esaterako».

Lehenengo saioan haurra nolokoa izatea nahi den landu zuten. «Horren arabera harreman mota bat edo bestea behar dugun». Eta bi eredu aipatu zituen: «Gure gurasoengandik jaso duguna da bat, hau da, helburua haurra txintxoa, esanekoa izatea dena. Baina hori ez da egungo eredu. Gaur egun, haurra arduratsua, autonomoa izatea bilatzen da, eta horretarako harreman mota batzuk izan behar dira», dio psikopedagogoak.

Telefono konpainien adibidea jarri du Amiamak gizartearen eraldaketa eta horrek ekartzen dituen moldaketak esplikatzen: «Lehen telefono konpainia bakarra zegoen. Ez zegoen aukera egiterik. Egun zenbait telefono konpainia ditugu eta aukeraketa bat egitea badaukagu. Heziketan hori landu behar da: haurrari eskaintzak ematea eta erabakiak hartzeko ahalmena izatea». Eta gaineratu du: «Lehen errespetua behetik gora zen, hau da, haurrak gurasoak errespetatu behar zituen eta kitto. Orain errespetua bi norabideetan landu behar da: haurrek gurasoekiko eta gurasoek haurrereko errespetua izan behar dute».

## VILLABONA ▶ ZINEMA

## Haurrentzako filma, bihar, Gurean

## ERREDAKZIOA

Olentzero eta subilaren lapurretaren haurrentzako filma eskainiko dute, bihar, Gurea aretoan. 17:00etan hasiko da emanaldia, eta 2,5 euro balioko du. Juanjo Elordik zuzendutako

film honek Anje gaztearen eta Olentzero bere lagun misteriozuen abenturen jarraipena kontatzen du.

Aldi honetan, Gabonetako opariak banatzen dituen pertsonaia haranean bizi diren haur guztien portaera beha-

tzen ari da subilean zehar. Egun hauetan, negozio gizon maltzur bat helduko da herrira eta zerikusia izango du Olentzeroren subilaren lapurretan. Anje, ikazkin gaztea, arduratuko da gauzak bere onera ekarzteaz.

**VILLABONAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**

Proiektu bateratua, berritzailea, inaurzun txertatua

**JANGELA • GARRAIOA • ORIENTAZIOA • GURASO ESKOLA**

**Fleming Ikastetxea.**  
Haur Hezkuntza Arroan (2-6 urte)  
Lehen Hezkuntza Arratzainen (6-12 urte)  
Tel.: 943 69 35 12 • Tel./Faxa: 943 69 14 13  
012277aa@hezkuntza.net

**Ernioe B. H. I.**  
Villabona  
**Ernioe Ikastetxea.**  
Derrigorezko Bigarren hezkuntza  
Arratzainen (12-16 urte)  
Tel.-faxes: 943 69 37 33  
012952aa@hezkuntza.net

**SANTA LUZI HEZKUNTZA GUNEA**

**KALITATEZKO D EREDUA**

**SAMANIEGO IKASTETXEA**

✓ HAUR HEZKUNTZA  
✓ LEHEN HEZKUNTZA

✓ DBH  
✓ BATXILERGOAK  
✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

943 65 10 63 943 65 13 87

## IKAZTEGIETA ▶ HIRIGINTZA

# Ikaztegieta plaza eta eliza eraberrituak datorren apirilera

Azaroan hasitako obrak itxura hartzen ari dira: elizako arkupea martxan, eta plazako zorua ere bideratzen hasia

## NEREA URBIZU

Hiru hilabete igaro dira jada Ikaztegieta plaza eta eliza obrak hasi zituztela. Lanean ari dira, hemendik gutxira herriak plaza izan dezan.

Elizako konponketak duela lau urte inguru hasi zituzten, teiatu berria behar zutelako eta, bide batez, barrutik margotu egin zuten. Obra esanguratsu hau apezpikutzaren diru laguntzaz eta parrokiaren diru laguntzaz bideratu zuten. Ondoren, bigarren fase batean azaroko obrak hasi zituzten, fatxada zarpeatu eta berdintzeko —margoa altxatzen hasia baitzen—, eta elizaren inguru guztian arkupe bat egiten ari dira. Hasiera batean txikia zen arkupea, baina inguru guztia egitea erabaki dute.

Hiru atari dauzka berez elizak, baina bat erabil daiteke soilik. Hau apirila arte izanen da, orduan bukatzeko asmoa baitituzte lanak.

Era berean, elizari atxikita zegoen pilotalekua zaharkituta zegoenez, herriko plaza egiten ari dira, lekuz aproposa delako, eta berez han jolasten zirelako herriko haurrak.

Elizako eta plazako urbanizazioari dagokionez, Ikaztegieta Udalak, parrokiak eta Foru Aldundiko Kultur sailak hartu du bere gain, diru laguntzei esker, alegia.

Herriko plaza izango dena fase ezberdinetan egin da, Xabier Rezabal arkitektoak azaldu duen moduan: lehenengo fasean, pilotalekua bota zuten eta eliza nolabait libre utzi. Beste fase batean elizaren inguruan egurrezko aterpea egitea izan da —oraindik ere ari dira horretan—. Plazan kiosko antzeko bat egiteko asmoa ere badute, bertan kontzertuak edota ekintza bereziak egiteko. Azken fasean, ingurua pabimentatzea falta da, farolak jaritzeaz gain. Lurra laua izanen da, kalitza zkoa, hain zuzen ere.

## Obretako ardura

Hasiera batetik hainbat enpresak hartu dute bere gain herri-



Ikaztegieta eliza, aurrean plaza izango dena duela. N. URBIZU

ko obra garrantzitsu hau. Frontoia botatzeaz Akuña enpresa arduratu zen. Elizako portikoa eta fatxada txukuntzea, bestalde, Azkoitia eraikinak enpresari egokitu zaio. Eta, azkenik, hi-

rigintza lanak Ergak eginen ditu.

Apirilera, hortaz, plaza berriaz gozatuko dute ikaztegieta, eliza behin konponduta inguruak txukun izanik.

## PILOTA ▶

## Zazpi-Iturri Berria Pilota Txapelketan hasiko da

Zazpi-Iturri bera eta Aurrera-Saiatz Euskadiko Kluben Txapelketan ari dira jokatzeko

## N. URBIZU

Zazpi-Iturri Amezetako pilota eskolak gaur Berria Txapelketan bere lehen jardunaldia jokatuko du. Hernanin izango dira hiru bikoteen partidak, 16:30etik aurrera. Arerio Intzako pilota eskola izanen dute gaur. Hauek dira txapelketan parte hartuko duten bikoteen izenak: kadeteetan, Iraola-Azelus; jubeniletan Ropon-Legarreta; eta nagusien mailan, aldiz, Elurbe-Baez.

Bihar, Euskadiko Kluben artekoan, Amezetako lau partida ikusi ahal izanen dira ere, Zazpi-Iturrikoen aldetik. Kadeteen mailan Sukiak Ortuella izanen du aurrez aurre 10:00etan. Binakakoetan Iraola eta Arzelus arituko dira, Berria Txapelketan ere arituko direnak, Lezamako bikote baten kontra. Nagusien mailan eskuz banakakoan Baez arituko da Zaramagako pilotari batekin lehiatuz. Bukatzeko, Elurbe-Beloki senior mailakoek Amezetako laugarren partidako jokatu dute Zaramagako kontra.

Kadeteen mailan Ropon-Legarreta eta Baez-Garmendia

bikoteak Zaramagara joanen dira partidak jokatzera, hauek ere 10:00etan.

## Aurrera-Saiatzekoak lehiatzen

Bestalde, Aurrera-Saiatz pilota eskolakoak Euskadiko Kluben Txapelketan jokatzeko ari dira, eta gaur Tolosako Beotibar pilotalekuan hauek dira ikusi ahal izanen direnak: 22 urte azpikoan artean, Senperenak izanen du lehenengo partida Usansolokoekin lehiatuz, 10:00etan. Jarraian, elite mailan dauden Belloso eta Oteiza lehiatuko dira Amurrioko pilotarien aurka. Hirugarren partidatan, eta 22 urte azpikoan mailan, Olaetxea eta E. Galarraga ariko dira Usansoloko pilota eskolako bikote batekin.

Arratsaldean, bestalde, lehenengo norgehiagoka 22 urte azpikoan izanen da, Beotibarren, 17:00etan: Aspe Orbegozoren aurka, hain zuzen ere. Jubenil mailan, berriz, Mujika Arguiako pilotari batek aurka ariko da, 17:00etatik aurrera. Ondoren, Irazustak eta Telletxeak osatutako bikotea Berriotxoaren kontra lehiatuko da.



Egurrezko leihoak, kontraleihoak, atek eta eskailerak neurria

**JANTZI ZURE ETXEA EGURREZ**

Tel.: 943 67 36 11 • Faxa: 943 67 36 55  
"Cuatro vientos" Industrialdea, 1  
Txarama auzoa • 20491 Leaburu





- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

**MATRIKULA EPEA:**  
**Otsailaren 6tik 17ra**

**Matrikulazio Ordutegia:**  
© 943 65 46 13-65 29 32  
9:00-13:00 - 15:00-18:00  
anoeta@ikastola.net

## NEKAZAL KOOPERATIBA

Sektoreko ezagutzak dituen pertsona bat behar da komertzial arloan lan egiteko.

Ongarri, Fitosanitario, animalien elikadura eta ukuiluetako instalazioetan esperientzia izatea baloratuko da.

Interesatuok bidali Curriculum Vitae, honako helbidera:  
**109 Posta Kutxa, 20400 Tolosa**



**Irurako Ikastola**

- (2-9 URTE)
- Lehen Hezkuntza

**'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'**

San Migel, 5 • 20271 IRURRA • Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

## IBARRA ▶ ARETO FUTBOLA

# Arnedo hartuko du Ibarrak gaur etxean

Sailkapeneko seigarren postuan dago Ibarra areto futbol taldea; gaur irabaziz gero, gora egiteko aukera izango luke

## ERREDAKZIOA

Arnedo talde errioxarraren aurka lehiatuko da gaurkoan Ibarra areto futbol taldea. Ibarrrako Belabietako kiroldegian izango da partida, 18:30etik aurrera. Pasa den asteburuan berdinketa ikusi eta gero, Cesar Rocarena mutilak garaipenaren bila joango dira gaurko partidari, porrotik ikusi gabeko ibilbidearekin jarraitzeko. Izan ere, aipatzekoa da azken porrota duela bi hilabete ikusi zuela talde ibartarrak Xota talde na-

farraren aurkako norgehiagokan.

Jose Manuel Tobias Ibarra-koen prentsa arduradunak azaldutakoaren arabera, itxura batean gaurkoak ez dirudi aretior zaila. Gainera, Arnedoko taldeak jokalaritza ugari ditu lesionaturik eta horrek asko erraztu beharko luke garaipena eskuratzea. Bestalde, ibartarrak gogotsu eta itxaropentsu daude, eta garaipena lortzeko helburuz duten gutzia emango dute. Gainera, Arnedokoak ez bezala, jokalaritza guz-

tiak jokatzeke prest daude. Arnedoren aurka jokatutako joaneko partida 4-3ko emaitzarekin amaitu zen errioxarren alde; partida horretan, ordea, Ibarrak gehiago merezi zuen, eta azken emaitzan zerikusi handia izan zuen epaileek eginko lanak.

Denboraldi erdia pasatu berri duten une honetan, Ibarra 6. postuan dago, liderrak baino 6 puntu gutxiagorekin. Garrantzitsua litzateke, beraz, gaurkoa irabaztea, goiko postuetara begira jarriko litzatekeelako Iba-

rrako taldea. Eta, gainera, gora-goko postuetan dauden talde-etako batzuk euren artean jokatuko dituztenez norgehiagokak, errazago izango dute ibartarrek postuetan gora egitea.

## Jubenilak garaipenaren bila

Jubenilen taldeak, berriz, Oñatin jokatuko du gaur, 16:00etan, Aloña-Mendiren aurka. Jubencil mailako derbia izango da, beraz. Gaurko norgehiagokak ez dirudi zaila ibartarrentzat, eta Juan Pablo Zubelzu Txubel-ek entrenatzen dituen mutilak garaipenaren bila joan beharko dute, liderrari gertu gertutik jarraitzeko.

Bestalde, Mikel Sanzek eta Mauro Ayerzak entrenatzen dituen Ibarra-Uzturpe kadeteek ere gaur izango dute norgehiagoka. Gaztetxoek 11:00etan jokatuko dute Donostiako Jesuitas de Aiete taldearen aurka.

## BERASTEGI ▶

## Podologoan txanda hartzeko deialdia

Hilaren 25ean 09:30etik 12:15era izango da Gaztairondo jubilatuen elkartearen podologoaren bisita. Ordua hartu nahi duenak Gaztairondo elkartearen bertan egin ahal izango du, 16:30etik 19:30era, edo 943 68 32 64 edo 943 68 32 02 telefono zenbakietara hots eginez.

## VILLABONA ▶

## Behar-Zanakoen partidak gaur Amasan

Behar-Zana Kirol Elkarteak pilotariak Euskal Herriko Txapelketako eta Gipuzkoako Udaberri Txapelketako saioak izango dituzte gaur. Batetik, 11:00etan, Amasako Udal pilotalekuan lehen mailako kadeteak eskuz banaka ariko dira Euskal Herriko Txapelketaren baitan; Behar-Zanako Urbietako lehiatuko da Sestaoko Lagun Arte taldeko pilotariaren aurka. Bestetik, eta pilotaleku berean, 12:00etan, eskuz binaka, bigarren mailako kadeteak ariko dira Gipuzkoako Udaberri Txapelketan; Behar-Zanako Ordozgoiti eta Irurzun pilotariak lehiatuko dira kasu honetan Donostiako Alde Zaharra taldeko pilotariaren aurka.

## AIZKORA ▶

# Gaur eta bihar erabakiko dira gazteen eta nagusien Urrezko Aizkolarien Txapelketako finalurrekoak

Nagusietan Arrospe leburuerra eta gazteetan Otaegi zizurkildarra daude sailkatuta

## IÑIGO TERRADILLOS

Urrezko Aizkolarien Binakako Txapelketako azken kanporaketa saioa jokatuko dute asteburu honetan, eta horrekin gazteen nahiz nagusien mailako finalurrekoak nor osatuko dituen erabakiko da. Finalurreko horietan eskualdeko bi aizkolarik —nagusietan Arrospe, eta gazteetan Otaegi— eskuratua dute txartela.

Nagusie dagokionez, bihar Dulantzin 12:00etan Olasagasti-Etxebeste, Lopez-Barberena eta Nazabal-Erdozia lehiatuko dira, eta hiru bikoteen artean azkarrena denak jokatuko ditu

finalurrekoak. Hala, Olasagasti eta Etxebeste sailkatzen badira, hilaren 12an Leitzan Mindegia-Senosiain I.a eta Arrospe-Mugerza, eta 19an Durangon, Azurmendi-Peñagarikano eta Olasagasti-Etxebeste lehiatuko lirateke finalurrekoan. Lopez-Barberena sailkatuz gero, hilaren 12an Leitzan, Mindegia-Senosiain I.a eta Arrospe-Mugerza, eta 19an Durangon Azurmendi-Peñagarikano eta Lopez-Barberena lehiatuko lirateke. Eta Nazabal-Erdoziak irabazten badute, hilaren 12an, Leitzan, Mindegia-Senosiain I.a eta Azurmendi-Peñagarikano eta

19an, Durangon, Nazabal-Erdozia eta Arrospe-Mugerza ariko lirateke nor baino nor.

Gazteen mailari dagokionez, gaur, 20:00etan, izango dute kanporaketa Dimako pilotalekuan. Bertan, Atutxa II.ak eta Aldapek osaturiko bikoteak Amillano eta Gorri III. ren aurka egingo du. Dimako hitzorduak berebiziko garrantzia izango du; izan ere, irabazleak finalurrekoan lehiatuko dira txartela eskuratua duten Otaegiren eta Larretxearen aurka, eta galtzaileak Mugerza anaien aurka. Dimako aizkolaria, hau da, Atutxa II.a eta Aldape dira gaurko faborito nagusiak.



Joseba Otaegi. J. U. / ARGAZKI PRESS

## TOLOSA ▶

## Udaberriko Txapelketako saioa bihar

Bihar, 11:00etan hasita, Lazkao pilotalekuan, Bidegoian eta Tolosako Aurrera-Saias taldeko Pastrian eta Galarragak osaturiko bikoteak Senior bigarren mailako Udaberriko Txapelketako partida jokatuko du Lazkao taldearen aurka.

## urteurrenak ▶

II.urteurrena



**Francisca Agirre Amondarain**

2004ko otsailaren 2an hil zen,  
79 urte zituela, Anoetan.

Meza  
Aitzon, bihar igandea, 11:30ean, Aita Karmeliten elizan

ANOETA, 2006ko otsailaren 4a

LEHENENGO URTEBETETZEA

† **SALSAMENDI URKIZU**tar  
**MIGEL ANTON**

JAUINA  
-Golan bego-

Gogorra da jakitea ez zaitugula ikusiko, baina guk ez dugu zure irudia galduko.

Zure anai-arrebak, koinata eta ilobak.

Haren animaren alde otoi bat eskatzen dizuetu eta arren etor zaitezela BIHAR, IGANDEA, eguerdiko HAMABI ETA ERDIETAN, Errezilgo MARTIN DEUNAREN parroki elizan egingo den urtebetetzeko mezara. Aldez aurretik, mila esker.

Errezilen, 2006ko otsailaren 4an

▶ hilberriak  
▶ urteurrenak  
▶ eskertzak

**Gipuzkoan**  
**50.000 etxetara**

HITZA guzfitan prezio beragatik

**ESKELAK**  
19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

## LEITZA ▶

**'Paradise now'**  
filma, bihar,  
zinema aretoan

Ihoteak amaituta, zinema saioak itzuli dira herrira. Hala, udaberrira arte behintzat, astebururo proiektatuko dute filmaren bat. Bihar, esaterako, Hany Abus-Assad zuzendariaren *Paradise now* lana izanen da ikusgai, 19:30ean, zinema aretoan. Palestinako eguneroko drama du gai pelikulak.

## LEHIAKETA ▶

**Kartel eta garaikur sormen lehiaketa**

Aresoko eta Leitzako hainbat ikasle dituen Aralar Udala Musika Eskolak kartel eta garaikur sormen lehiaketa antolatu du, antolatzen ari den I. Satur Erieta Musika Txapelketarako. Lehiaketaren oinarriak lortu edo informazio gehiago nahi duenak Aralar Udala Musika Eskolara jo behar du.

## TELEFONOAK ▶

**Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.**

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
  - ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernalde.**  
Medikua: 65 23 39
  - ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
  - ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
  - ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
  - ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
  - ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
  - ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
  - ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
  - ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
  - ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
  - ▶ **Oresa.** Medikua: 682228
  - ▶ **Tolosa.**
    - ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
    - ▶ San Esteban: 006800
    - ▶ Gernikako arbola: 006900
    - ▶ Amaroizko dispen.: 672637
    - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdia)
    - ▶ DYA: 672536
    - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
  - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe Tolosa: 652889
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxis: 670420
  - ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrarmendi egoitza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

## PILOTA ▶

**Amazabalen pilota jaialdia beste behin**

Aurrera pilota eskolako gazteak han eta hemen ari dira, hainbat txapelketetan

## J. ASTIBIA

Pilotazaleak, herrian etorkizuneko pilotari izanen direnen jarraipena egiten dutenek batez ere, badute Amazabalera bertaratzeko aitzakia asteburuko honetan ere: igandero bezala, pilota jaialdia antolatuta du-eta Aurrera pilota eskolako.

Eta, besteak beste, Euskal Herriko pilota taldeen arteko txapelketako partidua bat izanen da jokatzekoa eguerdian puntuan, hots, 12:00etan hasita: 22 urtez behokeoan saillean, Aurrera eskolako Patxi Beteluk jokatu du, Gasteizko Adurtzaren aurka. Bestalde, aitatu behar da txapelketa honetan, aurreko jardunaldian

Zuhaitz Beloki leitzarrak jokatuz zuela, eta 14 eta 22ko emaitzarekin partidua galdu egin zuela, Arguiaren aurka, Arrigorriagako bera. Eta sariketa honetan berean, baina nesken palazkoan, herriko ordezkariek ere ez zuten zortirik izan: Iera Agirre leitzarrak Saioa Aristorenarekin bikote zela, 30 eta 13 galdu baitzuen. Anotako Kuku taldeko bikotearen aurkakoa.

Euskal Herriko txapelketa honetat gainera, beste hainbatetan parte hartzen ere ari dira, Kirol Jokoetan, Antiguakoan, Errekakoan... eta herrian ez ezik, Donostia, Iruñerria, Malerreka... joatekoak dira pilotara.

**San Blas opilak egin**

**ARESO / HEZKUNTA** ▶ Eskolako 3tik 5 urte bitarteko ikasleak atzo goizean sukaldean aritu ziren, irin artean, andereño Marta Lopez de Munainen esanetara: San Blas opilak egin zituzten «baina anisiturik gabe», zehaztu zuten, eguna ere hala zela baliatuta. Osagaiak denon artean etxetik ekarri zituzten eta guztiak parte hartu zuten zozogintzan, urrats bakoitzean arreta handia jarri, eta opiltxo goxoak egin ere. Gelazgela banaketa egin zuten ondoren. MIKEL ILLARREGI

**TOLOSALDEKO HITZA.INFO**

**Irudietan.** Atal honetan gure herrietako irudiak daude ikusgai, bai egunkarian argitaratu izan direnak eta baita ez direnak ere. Adibidez, egun hauetan ia zoko Inauterietako argazki mordoska daude zintzilikatuta, aurtur datorenaren iragarpen modura.

## LEITZA ▶ FUTBOLA

**Lidergoa ziurtatzerako Aurrera**

**Gazte Berriak-en aurka jokatuko du bihar Arkixkilen, garrantziko partidua**

## JAIONE ASTIBIA

«Oso garrantzitsutzat» jo du Aurrerak igande honetan jokatuko duen partidua: Antsoingo Gazte Berriak taldea izanen dute aurrez aurre, Arkixkilen, 16:15ean, hain zuzen ere, sailkapeneko aurreneko lekuan, 35 punturen jabe delarik ere, Aurrerarekin batera doan taldea.

«Partidu hori irabaztea oso garrantzitsua eta beharrezkoa zaigu», ziurtatu zuten Aurrerako ordezkariek orain aurrekoan, HIZAREKIN sailkapenaz-eta hizpidetuta.

## Irabaztea helburu

Sailkapenaren buruan berdin daude bi taldeak puntuei dagokienez eta bien arteko lehia bizi-bizi dago: «Joanerakoan, banako berdinketa egin genuen, eta orokorrean aurka dituzten golen kopurua gurea baino tikiagoa denez, oraingoan berdinketa egiten badugu, haiek geldituko lirateke aurretik, hemen etxean gaudela, irabazten badugu berriz, bien arteko partziala gure aldekoa izanen da eta aurretik jarriko gara», azaldu zuten.

Hori guztia kontuan hartuta, beraz, esan daitezke Gazte Berriak taldeari irabaztea duela helburu Aurrerak. Biharko jardunaldian asko dute jokoan bien hala biek ere: leitzarrak aurrea hartu nahian zela irabazteko dira eta haiek asmo horiek zailtzen eta lortuta duten lekua ziurtatzerako etorriko dira.

Partidua gogorra eta lehiakorra izanen dela iragar daitezke, zaletuak bertara joatera gonbidatzeko modukoak.

Gaur ere bada zer ikusia Arkixkilen: gazteen taldeak horren dute aurrez aurre, Arkixkilen, 16:15ean, Irunberri taldearen aurka.

## Gazteak hobetuz

Hain zuzen ere, talde hau Bigarren Mailako Jubenetako 3. saillean, sailkapeneko azken lekuan dago; Aurrera, hiru leku gorago. Nabarmenezkoa da leizarren talde gaztea, talde berria dela Liga horretan eta zelai handitan jokatzen batera ohiharirik gabe hasi delarik, pixkanaka, hobetzen ari direla, distantziak-eta hartzen, eta lortzen dituzten emaitzak ere ez direla hain alde handikoak izaten, orekatuagoak baizik, horren eredu, gaur zortzi Lizarran, Cantolaguren aurkako partiduan, lortu zuten 3 eta 2koa, ozta-ozta ia irabazian ibilita.



**Salgai (Alegia).** Apartamentu garajearekin, Beria.  
**Salgai (Berrobi).** Pisu, baratza eta txabola. 168.000€  
**Salgai (Villabona).** Kale nagusian pisu egokia.  
**Salgai (Tolosa).** Pisu Laskorain kalean, Zoragarria.  
**Salgai (Tolosa).** Pisu igogailuarekin Laramendi kalean 112m2. Bista zoragarria.  
**Salgai (Tolosa).** Lokal komertzialak Nagusia kalean eta Bekate ibiltoan.  
**Salgai (Ibarra).** 60m2 lokalak.  
**Salgai (Tolosa).** Garajeak Leidor, Pedro de Tolosa eta Plaza Zaharrean.  
**Alokatzeko (Arribas).** 2 logelako pisua. Tolosatik 17km-tara.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Lokal giroa, Foru kalapean.  
**Alokatzeko (Tolosa).** Pisu Rondilla kalean.  
943 65 17 13 / 677 46 09 16

## iragarki laburrak ▶

**LANA**

**Iturgina.** Iturgin lanetarako laguntzailea behar da. 656 41 68 08.  
**Etzeko lanak.** Pertsona bat behar da etzeko lanak egin eta bi haur zaintzeko, goizez eta arratsaldez. 943 11 98 74.  
**Tabernaria.** Anoetan, neska eskualdina behar da tabernan 4 orduz lan egiteko. Eskarmentua duena. Deitu 635 74 52 91ra.  
**Geriatría-erizaina.** Eskarmentua

duen geriatría-erizain laguntzailea gaztea eskaintzen da pertsona helduak zaintzeko, astelehene larunbatera, orduka edo egun erdirako, Tolosa-Villabonan. 676 78 96 68 (20:00-22:00).

**ALOKERA**

**Tolosa.** Pisu alokatzen da Tolosan, altzariek. Deitu 943 671 020 telefono zenbakira.  
**Jaca (Espainia).** 3 logelako etxebizitza alokatzen da, eguneko.

635 75 02 93.

**SALGAI**

**Txakurrak.** Hispanier eta Setter arrazako bakurrak salgai. Deitu 943 691 432ra.  
**Faisaiak.** Faisaiak salgai. Deitu 943 654 881ra.

**GALDUTAKOAK**

**Txakurra.** Txakur emea galdu da Hernialden. Pekines gurutzatua eta marroi kolorekoa. 943 653 955.



**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Tolosa.** Ehiza txiki txapelketa txakurrarekin, Monteskun. 14:00ean joan behar da aterpera.  
**Anoeta.** Basagain ehiza ikarteak herriko ehiza txiki txapelketa txakurrarekin antolatuta du bazkideentzat, bihar, 09:00etatik 13:00etara.

**ERAKUSKETAK**

**Alegia.** Ana Ansorenaren zeramika lanak, Jubilatuen tabernan.  
**Hernalde.** Anselmo Elizalderen koadroak, Ostatu tabernan.  
**Ibarra.** *Calcuta: begirada zabalik.* Hilaren 15era arte, Benito Izagirre kultur etxean. Ibarrik Misio Taldeak antolatuta, Calcuta Ondoan GKEk egindako lanaren inguruan.  
**Tolosa.** Luis Mari Nuñezeren lanak. Hilaren 25a arte, Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** Txaro Medranoren artelanak. Hilaren 10a arte, Saikin tabernan.

**INAUTERIAK**

**Tolosa.** Zaldunita bezperako danborradarako entseguak: hilaren 13an, 14an, 15ean eta 16an, Kultur Etxean, 20:00etan; eta otsailaren 21ean, 20:15ean, Musika Eskolan.  
**Tolosa.** Karroza eta konpartsen izen-ematea. Hilaren 10a arte, Aranburu Jauregian.

**JAIK**

**Tolosa.** San Blas auzoa. Gaur: 12:30ean, haur jokoak; 16:00etan, Toka Txapelketa Probitziala; 18:30etik 21:30era, disko-festa. Bihar:

# Euskarari bai

## VILLABONA-ZIZURKIL ▶ Otsailetik ekainera bitarteko euskara ikastaroetan izen-ematea zabaldu dute



Dagoeneko izena eman duten ikasleetako batzuk, saio batean. HITZA

**ERREDAKZIOA**

Ikasturte hasieran zabaldu ohi dute euskaltegiek euskara ikasteko izena emateko epea. Baina irail inguruan eskolak jasotzen hasi ez eta oraindik gogoia duena garaiz dabil egunotan. Izan ere, otsailetik ekainera bitarteko euskara ikastaroetan izen-ematea zabaldu berri dute eskualdean. Besteak beste, Villabonan eta Zizurkil. Ez dago aitzakiarik, beraz, euskara ikasteari ez ekiteko.

Egun Villabonan eta Zizurkil lau taldek jasotzen dituzte eskolak. Ikasle horiek guztiek urritik ekainera bitarteko ikastaroetan eman zuten izena

ikasturte hasieran. Baina orain izena ematen dutenek ere talde horietan sartzeko aukera baidutela azaldu dute sustatzaileek: «Otsailen izena ematen duten ikasle berriak antolatuta dauden talde horietako batean sar daitezke, soilik ikasturte erdiari dagokion matrikula ordainduz».

Hain zuzen ere, hauexek dira lau talde horiek: «Ikastolaren Txermineko egoitza elkartzen da iluntzeko 19:00etan lehenengo urratsean dabilen ikasle taldea. Maila berean dabil Zizurkilgo Kultur Etxean 10:00etan elkartzen den beste ikasle taldea. Villabonako Kultur Etxean goizero 10:00etan elkartzen dena hirugarren urra-

tsekoa da. Eta, azkenik, bosgarren mailan dabilen ikasle taldearen Txermineko egoitza elkartzen dira, 19:00etatik aurrera». Eskola guztiak astelehenean hasi eta ostirala bitartean ematen dira, egunero bi orduz.

Izena eman nahi duenak Villabonako edo Zizurkilgo Euskara Zerbitzuak departamentuetara jo besterik ez du, edo AEKra deitu (943 59 17 04).

Bi herrietako udalek euskara ikasteko diru laguntzak ematen dizkiete herritarrei; zenbait baldintza betez gero, hain zuzen ere, matrikula osaren ehuneko hirurogeita hamabosta arte ordainduz.

09:00etan, Konponezinak txarangaren diana;  
11:00etan, meza hildako auzotar eta bazkideen alde;  
12:00, Amarozko dantzarien saioa; 12:30ean, herri kirol jaialdia Unai Otaño eta Elorriaga azikolariekin;  
13:00etan, Peñagarikano eta Irazu bertsolariak;  
18:00etan, bertsolarien bigarren saioa; 18:30etik 21:30era, Etxabe anaiak trikitilariak.

**MUSIKA**

**Tolosa.** Samar taldea. 22:30ean, Bonberenean.

**ZINEMA**

**Leitza.** Hany Abu-Assad zuzendariaren *Paradise Now*. Bihar, 22:30ean, zinema aretoa.  
**Tolosa.** *Una vida por delante* filma. Bihar, 19:00etan, Bonbereneako zine-klubean.  
**Villabona.** *Olentzero eta subilaren lapurreta*. Bihar, 17:00etan, Gurean. Euskaraz.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
**Leitza.** Gimeno, A. Elbarren, 52. 112.

**IRRATIA**

**Txolarre irrattia (107.5, 101.2 FM)**  
10:30-13:00. *Hitza* hegan magazina: elkarrizketak, *Mundurako leihoa*, kolaboratzaileak, agenda, porra, disko eskainiak...

**Goiko irrattia (107.0 FM)**  
13:00. *Kornerra* magazina. Posta elektronikoa: kornerra@hotmail.com.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

**AGURRAK ▶**

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
**Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA • Udaletxeko bulegoa - LEITZA**  
**Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri. Mila esker!**